

Urteko asterik aundienak

Aste Santua, Aste Gurena, Aste Nagusia, iru izentakera ezbardin eta esangura bakarra. Irurok erabilten dira anor-emen aurtengo apirilaren asieran jator-kun astea izentatzeko. Martiari agur egiterakoan, erramuz, ereinotz adarrez, eleizbiraz, txalokatua ikusten dogu Jesus. Ondorengo egunetan, bere ibilaldi historikoan egin zituan gauzarik aundienetan lagunduko deusagu. Aste Santua edozein kristinaurentzat aste aberatsa da, esanguraz eta salbamen ekintzaz betea. Ortze ospatzen ditugu salbamen misteriorik aundienak: Munduko lenengo mezea, Kristoren kurutzeko eriotzea, Jaungoikoaren siltasuna eta Andra Mariaren bakartadea, eta azkenik, domeka parterantza, Jaungoikoaren garaipen deadarra: Biztu da Kristo, Aleluia!

Orrexek danok ospatzen ditugu Aste Santuan. Berezko katez berari loturik, Pazko Asteak jarraitzen deutso, liturgiako asterik alaiena. Gaur eta biar eta etzi, asteke egun guztietan, Kristoren biztuerearen pozak olatu aundietan diardu gora eta goraka, baztar guztiak Salbatzaile biztuaren argiz distiratzten eta alaitzen.

«Zorioneko errua, orrelango Salbatzailea merezi izan ebana» esaten dau Pazko Gaueko deiak, pozaren indarkeari eutsi ezinik. Noraino eroan daiken eginkizun eta asmo bati eusteak, erantsi geinkeo.

Ez dago Aste aundi biotako geratariei parekatzekorik, aundiegiak, jainkotia-rgiari dira emengo jazoera txikitxoe-

kin parekatzeko, beteegiak. Baina ez dakit zergaitik, gaurko egunean orrelakoak gitxitan entzuten diralako edo ausaz, zezeilaren erdi alderantza egunkarietan irakurri genduana jatort burura. Barri miragarri lez eta leenengo orrialdean etorren gainera: Donostiako amabi neska gaztek euren diskotekak eta jaialdi zaratasuak alde batera itzi eta mojararako pausuak emon ei zituen. Diskoteketako zarata eta argi bristada egonozinak pobreen zerbitzuaren truke aldatu.

Barruan irakiten eben idealak geiago egin eutsien eta bizikerea aldatu egin eben. An eroango zituen euren barruan bein baino geiagotan aogozatu zituen «erramu domekea», lenengoz baietz sendo bat esatea, ainbat bestelako ames kurutzaratztea, Jaungoikoaren isildaldiren bat edo beste eta bakartadea, baina azkenik —moja jantzirik agertzeak lotsa apurren bat be emoten ei eutsien—, kittarratxoa arturik irugarren adinekoei eta pobreei pozorduak ekartea, ainbaten biotzetan aleluia kantuak ernetea.

Ideal aundi baten zerbitzuan eta jarraian pausu sendoak emona danak, badoa Aste Santuko eta Pazko Asteke poze eta ilunorduak ulertzeko oinarritxoa, azken baten, Jaungoikoak bereaz urteten dakiana badakialako.

Liturgiako asterik aundienak Aste Santua eta Pazko Astea dira. Eta gure asterik aundienak zeintzuk? Barruko altabozak emon bearko dau erantzuna.

Sabin BARRUETABEÑA, cp.